


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai azaroaren 7an

Gego. Infinitua neurtzen

Babeslea

 **Seguros Bilbao**  **Occident**
izangogara

Ikerketa, irakaskuntza, gizarte-ekintza edo artea komunitatearen mesedetan bultzatzea, horixe da Seguros Bilbao etxeak —aurki Occident izango denak, hau da, GCO (Grupo Catalana Occidente) taldearen negozio tradizionalako etxe guztiak bateratuko dituen marka berria— ardatz dituen nortasun eta balio humanisten funtsezko zati bat. Testuinguru horretan sortu zen gure konpainiak Guggenheim Bilbao Museoarekin duen lotura. Seguros Bilbao, Museoaren Babesle den heinean, harekin elkarlanean aritu da abian jarri zenetik, eta lankidetzaz hori areagotu ere egin izan da erakusketa jakin batzuen babesletza geure gain hartu izan dugunetan. Hala, Lee Krasner, Takashi Murakami, Yoko Ono edo Joanna Vasconcelos bezalako artista moderno eta garaikide entzutetsuen lana nazioarteko publikoari zabaltzen lagundu dugu.

Oraingo honetan, atsegin handia da guretzat *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketa babestea, Gertrud Goldschmidt (Gego) artista germaniar-venezuelarrari eskainia. Lau hamarkada baino gehiagoko ibilbidean, Gegok konpromiso handia erakutsi zuen beti arte plastikoarekiko, baina baita ikerkuntzarekiko, berrikuntzarekiko eta irakaskuntzarekiko ere.

Bere lanean, forma geometrikoekin, efektu optikoekin, tentsioarekin edo grabitatearekin lotutako gaiak aztertzen zituen Gegok, lengoia abstraktuaren bidez espazioa atzemateko sistemak bilatu nahian. Bere sorkuntzarik ezagunena, *Erretikularea (Reticulárea, 1969–82)*, Latinoamerikako eskultura modernoari egindako ekarpen garrantzitsua da —baina ez bakarra—, eta artistaren izena Museoko aretoetatik igaro diren beste egile batzuen (nola diren Lygia Clark edo Jesús Rafael Soto) bezain garrantzitsua da eszena horren baitan.

Eskultura, instalazio, marrazki, artista-liburu, ehuneko pieza, grabatu eta proiektu publikoen sorta adierazgarri bat biltzen du *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketak, eta zirriborroekin, dokumentuekin eta argazkiekin biribilduta dago. Objektu horiek guztiek, batera jarrita, bere garaiko testuinguruan bizi izan zen eta bere-berea zuen artea egin zuen artista baten erretratua osatzen dute.

JOSÉ MANUEL EREÑO

Seguros Bilbaoren Merkataritza-saileko Zuzendariondoko Nagusia

Gego. Infinitua neurtzen

- Datak: 2023ko azaroaren 7tik 2024ko otsailaren 4ra
 - Komisarioa: Geanine Gutierrez-Guimarães
 - Babeslea: Seguros Bilbao. Laster Occident
-
- XX. mendearen bigarren erdian Latinoamerikako eszenak eman zuen artistarik esanguratsuenetako bat da Gego, eta bide zeharo pertsonala —kategorizatorik onartzen ez duena— urratu zuen bere ibilbide artistikoan.
 - Erakusketa kronologikoki eta gaika antolatuta dago, eta Gegok forma organikoen, egitura linealen eta abstrakzio modularren bidez egin zituen ekarpen formalak eta kontzeptualak aztertzen ditu.
 - 150 eskultura, marrazki, grabatu, ehun, argitalpen eta argazkiren bitartez, erakusketak Latinoamerikako hainbat testuinguru artistiko biltzen ditu, Gegok bere ibilbide luzean zeharkatu izan dituenak, eta artearen mugimendu jakin batzuekin —tartean abstrakzio geometrikoa eta arte zinetikoa— izan dituen elkarguneak eta hausturak ere arakutzen ditu.

Guggenheim Bilbao Museoak *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketa aurkeztzen du. Atzera begirako horrek Gego izenez ere ezaguna den Gertrud Goldschmidt (Hanburgo, 1912–Caracas, 1994) artista germaniar-venezuelarraren lanaren ikuspegi integratzailea eta abstrakzioaren lengoaiatzat zuen ikuspegi berezia eskaintzen ditu. Seguros Bilbao (laster Occident) babesle duen erakusketa hori kronologikoki eta gaika dago antolatua, eta artistak forma organikoen, egitura linealen eta abstrakzio modularren bidez egin zituen ekarpen formalak eta kontzeptualak aztertzen ditu.

Erakusketak 1950eko hamarkada hasieratik 1990eko hamarkada hasierara arteko 150 objektu inguru biltzen ditu: eskulturak, marrazkiak, grabatuak, ehunak eta artista-liburuak, baita zirriborroak, argitalpenak, gutunak eta instalazioen zein obra publikoen argazkiak ere. Azterketa horrek Gegoren ibilbide luzeak zeharkatu zituen latinoamerikar testuinguru ugarien baitan kokatzen du haren praktika, eta jardunbide horrek nazioarteko funtsezko mugimenduekiko —abstrakzio geometrikoarekiko edo arte zinetikoarekiko, besteak beste— izan zituen elkarguneak eta hausturak ere arakutzen ditu.

Alemaniar familia judu batean jaio zen Gego, eta arkitektura- eta ingeniari-ikasketak egin zituen Technische Hochschule Stuttgart-en (gaur egun, Stuttgarteko Unibertsitatea). 1939an, nazien jazarpenetik ihesi, Venezuelara emigratu zuen, eta bertan finkatu zen behin betiko. 1953an artegintzan hasi zen, eta lau hamarkada baino gehiago eman zituen jardun horretan. Bere bi eta hiru dimentsioko lanetan, lerroaren, espazioaren eta bolumenaren arteko harremana aztertzen du hainbat baliabidetan. Gainera, bere ikerketan lanaren osagarri izan da artistak beste arlo batzuekin hartutako konpromisoa, besteak beste arkitekturarekin, diseinuarekin eta hezkuntzarekin.

XX. mendearen bigarren erdian Latinoamerikako eszenak eman zuen artistarik esanguratsuenetako bat da Gego. Bide nabarmenki pertsonala urratu zuen bere ibilbide artistikoan, eta, beraz, ezinezkoa da haren inguruko kategorizaziorik ezartzea. Ideia erradikalak eskaini zituen egitura-sistemei buruz egin zituen ikerketen bidez. Bere corpus artistiko berezian, metodikoki jorratu zituen gardentasuna, tentsioa, hauskortasuna, harreman espazialak edo mugimenduaren efektu optikoak. Atzera begirako historiko honek agerian uzten du Gegoren diziplina anitzeko praktikaren zabaltasuna, eta artista eta bere obra hobeto ulertzen eta balioesten laguntzen du testuinguru globalean.

Museoak eskerrak eman nahi dizkie Gego Fundazioari eta haren zuzendari diren Tomás Gunz eta Barbara Gunzi, baita Kontseiluari eta fundazioko langileei ere, erakusketa antolatzeko eman duten laguntza paregabeagatik.

ERAKUSKETAREN IBILBIDEA

Lehen obrak (1951–55)

Bigarren Mundu Gerratik aurrera aldaketa ekonomiko, politiko eta sozial handiak izan zituen Venezuelak. 1939an petrolio-esportatzaile nagusietako bat zen, eta munduko hirugarren ekoizlea. Petrolio-industriaren loraldiari eta Estatu Batuen laguntza ekonomikoari esker, herrialdeak bere modernizazioa finantzatu zuen gerraren ondoren. Une hartan, eraldaketa sendoa izan zuen Venezuelako arte modernoak ere. Berrogeita hamarreko hamarkadan abstrakzio geometrikoa agertu zen —forma, marra eta kolore garbiak eta egitura geometrikoak bereizgarri zituen nazioarteko mugimendua—, eta horrek berrikuntza handiko aldia ekarri zuen sorkuntza-arlora.

Testuinguru horretan, Gegok bizitza berriari ekin zion adopzio-herrialdean. Alemanian arkitektura- eta ingeniari-esparruetan jaso zuen prestakuntzari esker, 1940ko hamarkadaren hasieran bere kabuz hasi zen lan egiten Caracaseko arkitektura- eta hirigintza-estudioetan. 1953an, jardunbide hori alde batera utzi, eta arte-sorkuntzari ekin zion bete-betean. Tarmas herrira joan zen, Venezuelako Karibeko kostaldetik gertu, eta paisaian, forma arkitektonikoetan eta figurazioan oinarritutako motiboak sortzen hasi zen, hemen erakusgai diren adibide batzuetan ikus daitekeen bezala.

Lerro paraleloak (1957–67)

Bere praktika artistikoa adopzio-herrialdean garatu zuenez, Venezuelako abstrakzio geometrikoaren kontzeptuak bereganatu zituen Gegok; arte-joera horren ezaugarri nagusiak forma, lerro nahiz kolore puruak eta ordena geometrikoak dira. Beste horrenbeste egin zuen zinetismoarekin ere; herrialdean sustraitua zegoen arte-mugimendu hura hirurogeiko hamarkadan sortu zen, eta arte zinetikoaren funtsezko kontzeptuetatik abiatuta eboluzionatu zuen (grezierazko “kinesis”, mugimendua).

Atal honetako paper gaineko lanen eta eskulturen hautaketak aztergai hartzen du Gegok zer-nolako ikerketa egin zuen “lerro paralelo” deritzenek eskaintzen dituzten aukera espazialak eta estrukturalak oinarri hartuta. Pieza horietan, lerroaren erabilera —batzuetan askea, beste batzuetan konprimatua— “lerroen

arteko ezereza” oinarri hartzen duen pentsamolde sintetikoaren ardatza da; pentsamolde hori “ikusezina ikusgai bihurtzeko” bilaketaren funtsezko printzipioa da, hain zuzen ere, areto honetan dauden 1957ko eta 1964ko titulurik gabeko marrazkietan ikus daitezkeen bezala.

1960 inguruan, oszilazioaren eta bibrazioaren efektu optikoekin esperimentatzen hasi zen Gego, eta argiaren, mugimenduaren eta espazioaren inguruko esplorazioak sintetizatu zituen —arte zinetikoan nagusi diren gaiak, alegia—. Atal honetan ikus daitezkeen eskultoretako batzuek —gehienak margotutako burdina soldatuz eginak— tutu-formako elementu paraleloak dituzte, eta gainjarri eta gurutzatu egiten diren plano geometrikoak osatzen dituzte, esaterako *12 zirkulu zentrokide* (*12 círculos concéntricos*, 1957) eta *Lau plano gorri* (*Cuatro planos rojos*, 1967) eskulturek. Ikuspegi desberdinetatik behatzean, bibrazioaren eta mugimenduaren ilusio optikoa sortzen dute, eta objektuen pertzepzioa bera ere aldatu egiten dute.

Tamarind litografia-tailerra eta erretikulei buruzko azterlanak (1963–70)

Atal honetan aurkezten diren lanek Gegok 1963 eta 1970 bitartean egindako garapen garrantzitsuak erakusten dituzte —artistak hainbat bitartekorekin egin zuen lan garai hartan—. Artista 1959an izan lehen aldiz Estatu Batuetan, baina gerora maizago joaten hasi zen. Los Angeleseko Tamarind litografia-tailerrera gonbidapena jaso zuen 1963an, eta 1966an berriro gonbidatu zuten. Bertan, estanpa eta artista-lan ugari egin zituen, besteak beste *Titulurik gabea (Tamarind 1843IV)* eta *Titulurik gabea (Tamarind 1848B)* (1966). Atal honetan ikusgai dauden artelanek agerian uzten dute Gegok lerroaren, formaren eta espazioaren inguruan egin zuen ikerketaren bilakaera, baita teknika eta material berrien erabilera ere. Gofratuarekin, grabatuarekin, akuafortearekin eta litografiarekin esperimentatu zuenez, estanpatzaile aditu bihurtu zen garai hartan.

1969an, Gegok beste norabide bat hartu zuen: “lerro paraleloetatik” urrundu eta “erretikularea” direlakoetara igaro zen. Termino horrekin izendatu zituen bi eta hiru dimentsioko ekoizpenaren baitan egin zituen hainbat forma erretikular (erretikula- edo sare-formako egiturak). Hemen ikus daitezkeen marrazkiak 1969–70 urtekoak dira, Gego erretikula-formen diseinuarekin esperimentazio eta azterketa bizian aritu zen garai batean sortuak. Paper gainean tintaz egindako konposizio abstraktuok elkarri lotutako forma geometrikoak dituzte, besteak beste triangeluak eta karratuak, eta uhinak eratzen dituen sare baten itxura hartzen dute guztiek batera.

Turrustak, Enborrak, Esferak eta bestelako erretikula-motak (1969–88)

Atal honetan jasotako eskultura esekien sortak “infinitu neurtuaren” nozioa laburbiltzen du, oximoron poetiko bat alegia, Alfredo Silva Estrada poeta venezuelarrak Gegoren omenez idatzitako “Variaciones sobre reticuláreas” (Erretikulareen gaineko aldaerak, 1979) poemari erabiliena. Artistak egituraren, espazioaren, argiaren, itzalaren, lerroaren eta erretikularen inguruan egindako esperimentazioa iradokiz, poemak elementu finitu eta mugatutzat jotzen du espazio infinitua, Gegoren beraren formen bidez infinitua neurtzeko saiakera sinboliko (eta paradoxiko) gisa.

Atal honetan, bisitariak askatasunez azter ditzakete hiru sail garrantzitsuren adibideak: *Turrustak* (1970–74), *Enborrak* (1974–81) eta *Esferak* (1976–77). Aretorekin erdigunean bertikalki esekiak, obra minimalista horiek

hauskortasuna, grabitatea eta gardentasuna nabarmentzen dituzte, eta artistaren bilakaera formala ulertzeko aukera ematen du horrek.

Gainera, sare-itxurako beste pieza erretikular eseki batzuk ere badaude bertan, karratuetan edo triangeluetan oinarrituak, besteak beste *Titulurik gabeko* (1969), *Erretikularea karratua* (*Reticulárea cuadrada*, 1977) eta *Erretikularea turrusta* (*Chorro reticulárea*, 1988), metalezko elementu geometrikoz osatuak, eta batera erakutsita espazioan elkargurutzatzen diren lerroen konstelazioak iradokitzen dituztenak.

Ehunak (1956–88)

Gegok ehuntzearen kontzeptuarekiko eta ekintzarekiko zuen interesa erabat presente dago bere lengoaia artistikoan. 1940ko hamarkadan, Alemaniatik Venezuelara emigratu ondoren, besteak beste altzariak, lanparak eta alfonbrak diseinatzeko tailer bat ireki zuen. Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, behin baino gehiagotan, berriro ekin zion patroi korapilatsuko alfonbren eta ehunen diseinuarekin esperimentatzeari.

Hemen ikusgai dauden piezek Gegok arte aplikatuetara egindako itzulera irudikatzen dute. Bertan, titulurik gabeko tapiz eseki handia nabarmentzen da bereziki, artistak 1987 inguruan sortua. Pieza hori osatzen duten zuntz sintetikoak hari elkargurutzatuek paraleloan zeharkatzen dute konposizioa, eta begiztak eratzen dituzte muturretan; horren emaitza tarteka zeharrargia den ehundura bat da. Hormatik esekia, lan horrek agerian uzten du elementu linealak nola erabil daitezkeen —kasu honetan soka-itxuran— motibo abstraktuak sortzeko.

***Paperik gabeko marrazkiak* (ca. 1976–88)**

Paperik gabeko marrazkiak (ca. 1976–88) saila Gegoren obra-multzorik konplexuenetako bat da ikuspegi kontzeptualetik, eta funtsezko inflexio-puntua da bere bilakaera artistikoan. Alanbrez, birziklatutako metal zatiz eta burdineria txikiz egindako eskultura minimalista horiek sabaitik edo hormatik zintzilikatzen dira, gainazal bertikalean eta espazioan marraztuta baleude bezala, eta paperik eta markorik gabeko eraikuntza gisa funtzionatzen dute.

Artistari espazioa modulatzeko aukera amaigabeak eman zizkion sail horretako pieza-sorta bat da atal honetan aurkezten dena. Artelan horiekin eskulturaren autonomia-kontzeptua ere desafiatu zuen Gegok, hormaren mende jarri baitzuen obra, eta marrazkiaren bi dimentsioko ezaugarriak eman zizkion hiru dimentsioko formari.

Adibiderik goiztiarretetako batzuek kanporantz proiektatzen diren planoak dauzkate; beste batzuk, berriz, lerro horizontal, bertikal edo gurutzatuen inguruan egituratuta daude. 1979an marko karratu edo laukizuzen hutsen itxura hartzen hasi ziren pieza haiek. Laurogeiko hamarkadaren hasieran, sare, hariz eta alanbrez egindako egitura zirkularrak gehitu zituen Gegok. 1984tik aurrera, erretikula desitxuratuak edo hautsiak irudikatzen hasi zen: patroi lineal etenez edo amaitu gabeko osatutako konposizio geometrikoak. *Paperik gabeko marrazkiak* sailean egin zituen azkeneko lanetan eskala txikiagoa aukeratu zuen Gegok, obra

inguratzen zuen egitura oro ezabatu zuen, eta lerro zirpilduzko konfigurazio sigi-sagatsuak sortu zituen, konposizio geometriko eszentrikodunak.

Azken obrak: *Ehundurak, Zomorroak eta Zomorrotxoak* (1987–91)

1980ko hamarkadaren amaieran, bere azken hiru sailak egin zituen Gegok: *Ehundurak* (1988–91), *Zomorroak* (ca. 1987–91) eta *Zomorrotxoak* (1987–89), eta paper gaineko lanari heldu zion berriro adinak metalak eta gainerako material zurrinak manipulatzeko eragotzi zion heinean. *Ehundurak* pieza txikiak dira, bi dimentsiotakoak, artistaren lanetatik, aldizkarietatik eta liburuxketatik ateratako paper-zerrendak elkarri lotuz eginak. Artistak ehunak, korapiloak eta sareak osatzeko zuen etengabeko interesaren testuinguruan, azkenengo sail horrek laburbildu egiten ditu, azken batean, Gegoren lengoaia artistikoa egituratzen duten metodologia formalak eta kontzeptualak.

Bere azken bi eskultura-sailek —*Zomorroak* eta *Zomorrotxoak*— geometriaren, formaren eta erretikularen deformazioa eta erabateko kolapsoa adierazten dute Gegoren lanean. Gaztelaniaz, *bicho* hitzak zera esan nahi du, animalia, piztia edo, bereziki, zomorroa, baina izen espezifikorik ez duena izendatzeko ere erabiltzen da. Material berreskuratuekin eta artistak baztertutako beste lan batzuetako elementuekin sortuak dira egitura ezegonkorreko *Zomorroak* eta *Zomorrotxoak*. Forma eta egitura ezberdinetako konfigurazio iragarrezinak dituzten ensanblaje kaotiko horiei esker, artistak alde batera utzi zuen forma finkoa eta zurrina, eta egitura organiko irregularrak egiten hasi zen.

Gego. Infinitua neurtzen Guggenheim Bilbao Museoak antolatu du, honako hauekin lankidetzan: Solomon R. Guggenheim Museum, New York; Museo Jumex, Mexiko Hiria; eta Museu de Arte de São Paulo Assis Chateaubriand–MASP.

Erakusketa ondokoek garatu dute: Julieta González, Zuzendari Artistikoa, Instituto Inhotim, Brumadinho, Brasil; Geanine Gutierrez-Guimarães, atxikitako Arte-arduraduna, Guggenheim Bilbao Museoa eta Solomon R. Guggenheim Museum and Foundation, New York; eta Pablo León de la Barra, Arte-arduradun orokorra, Latinoamerika, Solomon R. Guggenheim Museum and Foundation, New York; hauekin lankidetzan: Tanya Barson, Kontserbazio-buru ohia, Museu d'Art Contemporani de Barcelona; eta Michael Wellen, Senior Arte-arduraduna, Nazioarteko Artea, Tate Modern, Londres.

KATALOGOA

Erakusketarekin batera liburu ilustratu bat argitaratuko da, Gegoren jardun artistikoa eta abstrakzioaren lengoiaz zuen ikuspegi berezia nabarmentzen duten testuak —Geaninne Gutierrez-Guimarães eta Luis Pérez-Oramasenak— baita kronologia bat ere biltzen dituen. Liburuaren diseinua, Álvaro Sotillok egina, ingelesezko jatorrizkoaren egokitzapena da, eta egilearen baimenarekin erabili da.

DIDAKTIKA

Erakusketaren Didaktika guneak —EDP Fundazioa babesle duenak— Gegoren ibilbide artistikoaren mugari garrantzitsuei buruzko informazioa biltzen du. Testuen, argazkien, beste diseinatzaile batzuekin elkarlanean egindako jatorrizko argitalpenen diseinuen eta artxiboko irudiekin egindako ikus-entzunezko edukien bidez, XX. mendearen erdialdeko arte latinoamerikarraren aitzindari eta erreferente den artista bertatik bertara ezagutu ahal izango dute bisitariak.

Jarduerak

Erakusketaren aurkezpen-hitzaldia (azaroak 2)

Erakusketaren komisario eta Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun Geanine Gutierrez-Guimarãesek Gegoren obra aurkeztuko du eskulturak, marrazkiak, grabatuak, artista-liburuak eta ehunak barne hartzen dituen ibilbide kronologiko baten bidez.

Z ostiralak: Arkitektura-tailerrak (azaroak 3, 10, 17)

20 eta 30 urte bitarteko gazteentzako tailer berriak, oraingo honetan “Gegoren arkitektura” ardatz dutenak, Euskadiko Arkitektura Institutuak (EAI) antolatutako *Mugak 2023* Arkitektura Bienalak eskainiak eta Mauthaus Arkitektura Laborategiak emanak, Museoaren TopARTE programaren baitan.

Hausnarketa partekatuak

Bisitaldi horietan, Guggenheim Bilbao Museoko profesionalek ikuspegi eta irakurketa desberdinak eskainiko dituzte *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketaren edukien inguruan.

- Arte-arduradunen ikuspegia, Geanine Gutierrez-Guimarãesen eskutik (azaroak 7)
- Funtsezko kontzeptuak, Luz Maguregui Urquizaren eskutik (azaroak 15)

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

... bisita-lagun (abendua 13)

Erakusketetara bestelako ikuspegi edo begirada batetik hurbiltzeko bisitaldi berriak dira, hainbat arlotako —besteak beste zientzia, zinema, kirola, diseinua, literatura edo musika— adituen eskutik. Oraingoan, Raúl Ibáñez Torres matematikari eta dibulgatzaile zientifikoak gidatuko du bisitaldia.

Proiektzioa: *Gego-Gertrud Louise Goldschmidt* (urtarrilak 19)

Nathalie David zinemagile franko-alemaniarrek zuzendutako film dokumentalaren proiektzioa. Zuzendariak aurkeztua eta Gego Fundazioaren eskaintza.

Azaleko irudia

Gego *Reticulárea* muntatzen Museo de Bellas Artesen, Caracas, 1969

Argazkia: Juan Santana

© Fundación Gego

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazioa eta Marketina saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Gego. Infinitua neurtzen
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudien zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) erregistratzeko aukera duzue bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistra zaitezke eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaileak bazarete, sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza. Horrela, zuzenean deskargatu ahal izango dituzue irudiak.

- Ematen diren irudiak *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2023ko azaroaren 7tik 2024ko otsailaren 4ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoko egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Fitxategiak online argitalpenean txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin zaizkio hirugarren bati transferitu, ezta datu-base batera ere.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake, eta alde zuzenetik behar da obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoren Prentsa-eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan, edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

Gego *Reticulárea* muntatzen Museo de Bellas Artesen, Caracas, 1969
Argazkia: Juan Santana
© Fundación Gego



Gego Pampataren, Isla de Margarita, Venezuela, 1984
Argazkia: Lorimer Rojas
Archivo Fundación Gego
© Fundación Gego



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)
12 zirkulu zentrokide (12 círculos concéntricos), 1957

Aluminioa eta pintura
37 x 29 x 24 cm, oinarria barne

Bilduma pribatua, Austin

© Fundación Gego

Argazkia: Tasnadi, eskaintza: Archivo Fundación Gego



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Titulurik gabea, 1958

Tinta paper gainean

21,6 x 14,3 cm

MACBA bilduma. MACBA partzuergoa. Gordailua: Fundación Gego

© Fundación Gego

Argazkia: FotoGasull, eskaintza: MACBA Museu d'Art Contemporani de Barcelona



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Lau plano gorri (Cuatro planos rojos), 1967

Burdina eta pintura

84 x 90 x 84 cm

Colección Patricia Phelps de Cisneros

© Fundación Gego

Argazkia: eskaintza: Colección Patricia Phelps de Cisneros



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Titulurik gabea, ca. 1969

Altzairua, burdina, nylona eta beruna

60 x 50 x 40 cm

The Ella Fontanals-Cisneros Collection, Miami

© Fundación Gego

Argazkia: Oriol Tarridas, eskaintza: CIFO Cisneros Fontanals Art Foundation



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Zutabea (Columna), 1972


Altzairua, aluminioa eta kobrea

229,8 x 140,1 x 149,9 cm

The Ella Fontanals-Cisneros Collection, Miami

© Fundación Gego

Argazkia: Oriol Tarridas, eskaintza: CIFO Cisneros Fontanals Art Foundation



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)



Enborra 5 zk. (Tronco nº 5), 1976

Altzairua

179 x 73 x 73 cm

Bilduma pribatua, Austin

© Fundación Gego

Argazkia: Thomas R. DuBrock, eskaintza: The Museum of Fine Arts, Houston

Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Zazpi ikosidodekaedro (Siete icosidodecaedros), 1977


Altzairua eta kobrea

110 x 170 x 85 cm

Colección Fundación Gego. Gordailuzaina: Museum of Fine Arts, Houston

© Fundación Gego

Argazkia: Eskaintza: The Museum of Fine Arts, Houston



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Erretikularea karratua (Reticulárea cuadrada), 1977

Altzairua, kobrea, burdina eta pintura

366 x 95 x 95 cm, oinarria barne

MACBA bilduma. MACBA partzuegoa. Gordailua: Fundación Gego

© Fundación Gego

Argazkia: FotoGasull, eskaintza: MACBA Museu d'Art Contemporani de Barcelona



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Erretikularea turrusta (Chorro Reticulárea), 1988

Altzairua

200 x 100 x 70 cm

Colección Mercantil, Caracas

© Fundación Gego

Argazkia: Walter Otto, eskaintza: Colección Mercantil, Caracas



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912-1994)

Paperik gabeko marrazkia (Dibujo sin papel), 1985

Burdina eta pintura

63 x 54,5 x 21 cm

Bilduma pribatua

© Fundación Gego

Argazkia: Barbara Brändli



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Paperik gabeko marrazkia 86/14 (Dibujo sin papel 86/14), 1986



Aluminioa, altzairua, burdina, kobrea, plastikoa eta pintura

68,5 x 31,5 x 3,3 cm

Colección Fundación Gego. Gordailuzaina: Museum of Fine Arts, Houston

© Fundación Gego

Argazkia: Thomas R. DuBrock, eskaintza: The Museum of Fine Arts, Houston

Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Titulurik gabea, ca. 1987

Zuntz sintetikoa eta zura

200 x 201 x 4 cm

Colección Fundación Gego, Caracas

© Fundación Gego

Argazkia: Reinaldo Armas Ponce, eskaintza: Archivo Fundación Gego



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Zomorroa 87/9 (Bicho 87/9), 1987


Burdina eta pintura

41 x 65 x 71 cm

MACBA bilduma. MACBA partzuergoa. Gordailua: Fundación Gego

© Fundación Gego

Argazkia: FotoGasull, eskaintza: MACBA Museu d'Art Contemporani de Barcelona



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Zomorrotxoia 89/22 (Bichito 89/22), 1989

Burdina, kobrea, plastikoa eta pintura

13,5 x 9,5 x 9 cm

MACBA bilduma. MACBA partzuergoa. Gordailua: Fundación Gego

© Fundación Gego

Argazkia: FotoGasull, eskaintza: MACBA Museu d'Art Contemporani de Barcelona



Gego (Gertrud Goldschmidt) (1912–1994)

Titulurik gabea, ca. 1991

Papera, kartoi mehea eta tinta

17,6 x 21 cm

MACBA bilduma. MACBA partzuergoa. Gordailua: Fundación Gego

© Fundación Gego

Argazkia: FotoGasull, MACBA Museu d'Art Contemporani de Barcelona

